



fundación
VEDRUNA
EDUCACIÓN

Niño Jesús

Vitoria-Gasteiz

2025-2026

EKINTZA OSAGARRIAK

ASTEAZKEN ARRATSALDEAK

HH 3-4 ETA 5 URTE

**EUSKARAZ
JOLASTEN**

PSIKOMOTRIZITATEA

LH 3-4

EUSKARAZ JOLASTEN

INGELESA

LH 1-2

EUSKARAZ JOLASTEN

INGELESA

ESKULANAK

LH 5-6

IKASTEKO GELA

XAKEA

LH 3-6

KULTURA ETA HIZKUNTZA TXINATARRA

Kontaktua:



complementariasnj@njesus.com

**Asteazkenetan
15:15 - 16:45**





INFORMAZIO OROKORRA

Ekintza osagarriak: asteazkenetan 15:15etatik 16:45ak arte

- Jarduera osagarrien inskripzioak online egingo dira, formularioaren bidez.
- Epea **maiatzaren 26an hasi eta ekainaren 3an amaituko** da. Ikasleak izena emandako ordenaren arabera onartuko dira jarduera bakoitzean, edukiera bete arte. Behin-behineko zerrendak ekainaren 16an argitaratuko dira.
- Jardueraren bat ez bada iristen hura garatzeko behar den gutxieneko ikasle-kopurura, jarduera eten aurretik izena eman zuten pertsonei jakinaraziko zaie.
- Ikasle batek ikasturte erdian jarduera uztea erabakitzen badu, ez zaio urteko kuotaren zenbatekoa itzuliko.
- Ordainagiriak bi epetan igorriko dira: lehenengoa ekainean, plaza-erreserba gisa; bigarrena irailean.
- Erreserba egiteko 20 €ordaindu behar dira jarduera bakoitzeko, eta kopuru hori bigarren ordainagiritik kenduko da (irailean). Aldez aurretik baja emanez gero, ez da kopuru hori itzuliko, jarduera oraindik hasi ez bada ere. Erreserba eta jardueraren kostua familiak ikastetxeari lotuta duen kontura pasatuko dira. Ordainketa behar bezala formalizatzen ez bada, ikaslea **ez** da jardueran inskribatuko.
- Ikastetxeak taldeak zabaltzeko eskubidea izango du, familien aldetik eskaera handia badago.
- Ikasle batek erabakitzen badu ikasturte erdian izena ematea jarduera osagarrietako batean, plazarik badago, urteko ordainketa osoa egin beharko du.
- Jardueren urteko kostuari esker, jarduerak ikasturte osoan zehar behar bezala funtzionatzen duela bermatzen dugu, bai eta horretarako behar diren materialak erosten direla ere.
- Inskripzio bat egin beharko duzue jarduera batean izena eman nahi duzuen seme-alaba bakoitzeko. Seme edo alaba bakoitzarentzat hautatutako jarduera 1 baino ez da.

Haur Hezkuntza

3, 4 eta 5 urte

Euskaraz jolasten:



"Euskaraz Jolasten" Haur-Hezkuntzarako diseinatutako jarduera bat da, jolasen eta jolas-jardueren bidez euskara ikasteko helburua duena. Ekimen honek, hizkuntzaren ikaskuntzan ez ezik, talde-zentzua sortzean eta lankidetzan ere jartzen du arreta. Jolasak eta jarduerak berariaz egokitzen dira haurrek euskaraz hizkuntza-trebetasunak eskuratzen dituzten bitartean goza dezaten, eta, horrela, ikaskuntza-giro dibertigarria eta parte-hartzailea sustatzen da

Parte-hartzaileen
gutxieneko kopurua

8

Parte-hartzaileen
gehieneko kopurua

20

Jardueraren urteko kostua

150 € urtero

3, 4 eta 5 urte

Psikomotrizitatea:



3, 4 eta 5 urteko haurren psikomotrizitatea funtsezkoa da haien garapen integralerako. Mugimendua eta kognizioa uztartzen dituzten jardueren bidez, txikiek koordinazioa, oreka, espazioaren eta denboraren pertzepzioa hobetzen dituzte, baita kontzentratzeko eta arazoak konpontzeko gaitasuna ere. Gainera, autoestimua, sozializazioa eta adierazpen emozionala sustatzen ditu.

**Parte-hartzaileen
gutxieneko kopurua**

8

**Parte-hartzaileen
gehieneko kopurua**

16

**Jarduerraren urteko
kostua**

150 € urtero

Lehen Hezkuntza

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailak

Euskaraz jolasten:



"Euskaraz Jolasten" Lehen Hezkuntzarako diseinatutako jarduera bat da, jolasen eta jolas-jardueren bidez euskara ikasteko helburua duena. Ekimen honek, hizkuntzaren ikaskuntzan ez ezik, talde-zentzua sortzean eta lankidetzan ere jartzen du arreta. Jolasak eta jarduerak berariaz egokitzen dira haurrek euskaraz hizkuntza-trebetasunak eskuratzen dituzten bitartean goza dezaten, eta, horrela, ikaskuntza-giro dibertigarria eta parte-hartzailea sustatzen da.

**Parte-hartzaileen
gutxieneko kopurua**

8

**Parte-hartzaileen
gehiengo kopurua**

20

Jardueraren urteko kostua

150 € urtero

Ingelesa 1. eta 2. mailak



1. eta 2. mailako ikasleentzako ingeleseko eskolak ikaskuntza-esperientzia dibertigarria eta estimulagarria ematera bideratuta daude, hiztegia eskuratzea eta kultura ingelesarekin ohitzea sustatzeko.

Jolas eta jarduera interaktiboak erabiltzen dira ikaskuntza-prozesua parte-hartzailea eta hunkigarria izan dadin haurrentzat. Ingelesean murgilduz, ikasleek beren hizkuntza-trebetasunak modu natural eta progresiboan garatzeko aukera dute.

**Parte-hartzaileen
gutxieneko kopurua**

8

**Parte-hartzaileen
gehieneko kopurua**

16

Jardueraren urteko kostua

150 € urtero

Eskulanak:



Eskulanen jarduera tresna eraginkorra da sormena aberasteko eta ikasleen hainbat trebetasun garatzeko. Materialak manipulatzuz eta proiektuak sortuz, ikasleek beren irudimena azter dezakete, eta hainbat trebetasun hobetu, hala nola eskuaren eta begiaren arteko koordinazioa, motrizitate fina eta arazoak konpontzea.

**Parte-hartzaileen
gutxieneko kopurua**

8

**Parte-hartzaileen
gehieneko kopurua**

16

Jardueraren urteko kostua

150 € urtero

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak

Ingelesa 3. eta 4. mailak



Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleentzako ingelesa, ingeleseko oinarritzko trebetasunak garatzean oinarritzen da, hala nola entzumena, ahozko adierazpena, irakurketa eta idazketa. Ikasleek hiztegi eta egitura gramatikal sinpleak ikasten dituzte jarduera interaktiboen, abestien, jokoen eta ariketa praktikoen bidez.

**Parte-hartzaileen
gutxieneko kopurua**

8

**Parte-hartzaileen
gehieneko kopurua**

16

Jardueraren urteko kostua

150€ urtero

Euskaraz jolasten:



"Euskaraz Jolasten" Lehen Hezkuntzarako diseinatutako jarduera bat da, euskara jolas eta jolas-jardueren bidez ikasteko helburua duena. Ekimen honek, hizkuntzaren ikaskuntzan ez ezik, talde-zentzua sortzean eta lankidetzan ere jartzen du arreta. Jolasak eta jarduerak berariaz egokitzen dira haurrek euskaraz hizkuntza-trebetasunak eskuratzen dituzten bitartean goza dezaten, eta, horrela, ikaskuntza-giro dibertigarria eta parte-hartzailea sustatzen da.

**Parte-hartzaileen
gutxieneko kopurua**

8

**Parte-hartzailearen
gehieneko kopurua**

20

Jardueraren urteko kostua

150€ urtero

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak

Xakea



Xake-jarduera hezkuntza-tresna bat da, parte-hartzaileen garapen kognitiboa, emozionala eta soziala sustatzen duena. Milaka urteko joko honen bidez, jokalariek hainbat trebetasun lantzen dituzte, hala nola kontzentrazioa, plangintza estrategikoa, arazoak konpontzea eta erabakiak hartzea.

Gainera, xakeak hainbat balio sustatzen ditu, hala nola pazientzia, pertseberantzia eta aurkariarekiko errespetua. Jarduera honek ikaskuntza ludikorako gune bat eskaintzen du, non parte-hartzaileek beren gaitasun mentalak hobetu ditzaketen esperientzia interaktibo eta aberasgarri batez gozatzen duten bitartean.

Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua

8

Parte-hartzaileen gehieneko kopurua

14

Jardueraren urteko kostua

150€ urtero

Ikasketa-gela:



Ikasketa-gela batek ingurune egokia eskaintzen du ikasleek modu independentean lan egiteko, beren etxeko lanak osatzeko eta ikasketetan kontzentratzeko. Mahaiak, aulkiak eta hezkuntza-baliabideak ditu, eta gune horrek giro lasaia eta bideratua eskaintzen du, produktibitate akademikoa sustatzen duena.

Ikasleek aukera dute beren denbora ahalik eta gehien aprobetxatzeko, eraginkortasunez antolatzeko eta, behar izanez gero, laguntza jasotzeko.

Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua:

8

Parte-hartzaileen gehieneko kopurua

25

Jardueraren urteko kostua

120 € urtero

Lehen Hezkuntzako 3.mailatik 6.mailara

Txinatar hizkuntza eta kultura



Txineraren jarduera ikasleei kultura berri batean eta hizkuntza berri batean interesa pizteko eskaintzen zaie. Eguneroko gauzei buruz hitz egiten eta hitz errazak idazten ikasiko dute (familia, zenbakiak, koloreak, etab.) jolasen eta abestien bidez. Jarduera honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:

- Ikasleak Txinako kulturara hurbiltzea.
- Hizkuntza global batean lehen urratsak ematea.
- Jolas- eta partaidetza-metodologiarekin ikastea.
- Pentsamolde irekiagoa, errespetutsuagoa eta toleranteagoa sustatzea.

Parte-hartzaileen kopurua eta adina jakin ondoren, taldea(k) sortuko d(ir)a.

Parte-hartzaileen gutxieneko kopurua

8

Parte-hartzaileen gehieneko kopurua

20

Jardueraren urteko kostua

150€ urtero